

KATAFORA-ESAPIDEAK BATERATZEKO BIDEAN

Juan Garzia Garmendia

Euskara Zerbitzua

Katafora mota bakar bat dugu hemen aztergai: bi-puntuen ondoren doana aurretik ordezkatzeko duena.

Aurreko esaldian bertan ikusten denez, bi-puntuek berek bete dezakete katafora-eginkizuna, erakusle-proforma esplizitura jo gabe:

- (1) Katafora mota bakar bat dugu aztergai [eta *hau* da]: bi-puntuen ondoren doana aurretik ordezkatzeko duena.

Bistakoa da prozedura horrek testu zientifiko, tekniko eta akademikoetan duen garrantzia. Eskuarki, paragrafoaren amaieran geratzen dira bi-puntuak, eta segidan doa, paragrafo-jauziaren ondoren, [*hau(ek)*] inplizitu nahiz esplizituaren zabalpena:

- (2) Hiru genero bereizten dira [: *hauek*]:
- (3) Hainbat genero bereizten dira. (Hiru [genero]) *hauek* dira behinenak:

Adibideotan erabili ditugun horietan dira, dudarik gabe, katafora esplizituetarako oinarritzko elementuak: lehen graduko erakusleak, izenordain funtzioan nahiz izen bati lagunduz haren determinatzaile gisa. (Errepara, hasieratik, erdaraz ez dela hori abiapuntua, *esto(s)*: baino *lo(s) siguiente(s)*) baita dudarik gabe lehen aukera, idatzi formalean).

Kasu absolutiboa da (*hau(ek)*) ohikoen, egokien eta komenigarriena halakoetan, baina aipatu beharra dago ez doala noski gramatikaren aurka bestelakoetara jotzea (komunztadura hausteko aukera ematen baitute bi-puntuek):

- (4) baldintza *hauetan/hauekin*:
 - tenperatura hotz samarra eta beti berdina izatea
 - lekua iluna izatea eta ez hezeegia

Absolutibotik kanpo, besteak beste, *honela* moduzkoa da oso erabilia. Esatezko aditzekin, hain zuzen, absolutiboen lekua hartu ohi du:

(5) *Honela* [=hau] esan/aldarrikatu/oihukatu/... zuen:

Bestalde, kataforen berezitasunaren seinale, bitxia da halakoetan, anaforetan ez bezala, plural hurbilera jotzea (*honakorekin* doanean aukerakoago da):

(6) ?baldintzok:

(7) (*honako* baldintzok:)

Forma soilen ordeztuak erabiltzea, berriz *-hauxe/hauexek-*, bestela justifikatzen ez bada, horixe da, hain zuzen: alferrik erabiltzea forma indartua (enfasi-inflazioa, nolabait esateko). Elkarrizketa-egoeran, apika, errazago jotzen dugu enfasi mota horretara, baina testu neutroetan ez dirudi hain egokia. Kasu batzuetan, lehen gradua bestelako eginkizunetarako erabiltzeak dakarke joera hori (hots, “hautismo”ak):

(8) ? Hau_i [aurretik aipatu dena] jakinda, *hauxe*_j da egin behar duguna:

Eta aise konpon liteke (*hau*_i eta *hau*_j berdin ez ematearren erantsi bide zaio kataforikoari *-xe* soberako hori):

(9) *Hori* jakinik, *hau* egin behar dugu:

Azken adibide horrek bide ematen digu testugile askok aintzat hartzen ez duen moldera jotzeko:

(10) *Hori* jakinik, *hona* zer egin behar dugun:

Hara/horra/*hona* serieko elementuei, erabilera horretan, izenen bat ematekotan, “erakusle fatiko” deitu behar genieke, entzule-irakurlearen arreta nabarmen erakartzeko baliatzen baitira (berezko deiktikotasuna galdu gabe noski).

Alegia, kasu horretan “*hona*” ez da “*hemen + -ra*” lekuzko erakusle arrunta, baizik “ikus ezazu (*hemen*)”.

Merezi du konparatzea, bidenabar, fatikoarekin doan zehar-galdera guztiz natural hori beste bideko erlatibo usteltxoarekin:

(11) *Hona* zer egin behar dugun:

(12) *Hau* da egin behar duguna:

Zilegi litzateke, jakina, *hona* soilaren ordeztu *hona hemen* moldea erabiltzea halakoetan, deiktikotasunaren erredundantziak. Badu horrek bere lekua tradizioan, baina ez dirudi aukeran luzeen hori komeni zaionik testuen ekonomiari, *hemenik* gabeko forma aski den ber.

Erredundantzia da, hala ere, enfasi-molde tipikoenetarikoa, eta hartarakoxe balia dezakegu, beraz, *hemen* eta guztiko moldea, dagozkion testuinguruetan, eta elkarrizketa-egoeretan batez ere, testu neutrotik aldendurik.

Batzuetan, bide guztietakoak batera biltzen ditu zenbaitek, alferrik bezain trakeski:

(13) ?? *Honako hau*xe da egin behar duguna:

Halakoari, inflazio eta bihurrikerian atzera egitea komeniko litzaioke noski, koskaz koska:

(14) (*Honako*) *hau* da egin behar duguna: >

(15) (*Honako*) *hau* dugu egin beharra: >

(16) (*Honako*) *hau* egin behar dugu: / *Hona* zer egin behar dugun:

Zeharka bada ere, horra agertu kataforetan barra-barra darabilgun beste elementua: *honako*. Anafora urrun eta gogoraziozkoen eredu berean (“*harako* Ulisesek zeharkatu zuen itsaso ardo-kolore *hura*”), erakusle arruntak sintagmaren amaieran adierazten duenaren aurrerapen modukoa da lehen graduko faktikoan oinarrituriko izenlaguna (*hona + -ko*):

(17) harako ... hura

(18) *honako* ...*hau*:

Zentzu horretan, erredundanteak dira, berez, *harako/honako* horiek guztiok (*horako* deiktikoagoa da, eta leku gutxiago du testuetan, baina hura ere *horiren* erredundantzia fatikoa baino ez da). Hala ere, sintagma luzeak hasieratik markatzeko abantaila sintaktikoaz gainera (eta garrantzizkoa dugu hori testu konplexuetan), esplizitazio enfatikoaz nabarmenagotzen dute zeinek bere funtzioa: anafora urrunarena batean, eta kataforarena bestean (guri hemen dagokigun kasuan).

Kasurako, katafora-sintagma galdegai ez denean eta bi-puntuetatik urrun geratzen denean, ongi etorri ohi da kataforatasuna erredundantziak nabarmenagotzea:

(19) *Honako* baldintza *hauetan*, nekeza da produktua epe ertainean honda dakigun:

Azkenik, kontuan hartu behar da, “hautismo”rik gabeko erabileran ere, badela anbiguitate-arriskurik. Izan ere, deiktikotasun arrunta dabil beti lehian anafora nahiz kataforekin:

(20) Baldintza *hauetan* [hemen guk ditugun baldintzetan], nekeza da produktua epe ertainean honda dakigun.

Bada, bestalde, kontraesan txiki bat: *honako* hain sarri erabiltzeko, haren oinarrian dagoen *hona* soila ere paretsu erabili beharko genuke noski, eta ez dirudi hori denik kasua praktikan (seinalatu ditugu *honarik* ez erabiltzearen zenbait sintaxi-ondorio).

Honako berez erredundantetzat jo badaiteke ere, haren aldekoa da, esaterako, Mitxelenaren praktika, eta ez dirudi eredu txarra harenak. Tradizio zaharragoan, berriz (baina testuen nolakoa ere kontuan hartu behar da), ez da batere erabili, antza, eginkizun horretan, Mitxelenaren aurretik. Aski izan bide zaie gure zaharragoei *hau(ek)* soila.

Mitxelenagandik hasita, bestalde, beste muturreraino jotzeko tentazioa nabari da, hots, erakuslerik gabe ere erabiltzea fatikoazko molde hori (alegia, fatikoa bera bihurtuz, besterik gabe, kataforiko):

(21) *honako* proposamen *hau(ek)*: >

(22) *honako* proposamena(k)/ok:

Beharbada, honelakoen analogiaz:

(23) ardo hau / honelako ardoa

(24) esaldi horiek / halako esaldiek

Hala, [X *hau*]ren bariazio modukoa litzateke azkenean [*honako* X-a] (zenbait bizkaieratako (*h*)*au gizona*(*u*) *gizon* (*h*)*auren* aldaera den modu bertsuan.

Harakorekin ere ibili bera egin bide du joskerak, Orotarikoak dakartzan adibideetan ikus daitekeenez. Bide batez, *harakoren* erabilera hori —eta, beraz, *honakorena* ere berdin?— mendebalekoa baino ez dela ohartarazten digu Orotarikoak. Harrigarri samarra ere bada, alde batera, normal-normala baita han *hona/huna* fatikoa (=voici), eta, frantses modernoan bederen, *que voici* ere arrunta baita (*honakotik* guztiz hurbil).

Batasunerako, eta estandarerako, egokiago dirudi erakusleei eustea, aukeran utzirik haiez gainera “honako” erabiltzea, iradoki dugun moduan. Bestela, beste dibergentzia bat bultzatzen ariko ginateke, lehenaz gainera, euskalkien artean.

Esanak esan, ez da halako misterioa ere seinalatu duguna: *honako* eurrez eta *hona* hain gutxi agertzea, alegia, testuetan. Izan ere, erdarazko baliokideei begiratzen badiegu, berehala konturatuko gara *honakorena* —*el/lo(s) siguiente(s)*— zabal erabiltzen dela, baina *honarena*, berriz, zaharkitu edo bitxi kutsuarengatik, ez dela gaur egun ia inoiz agertzen gaztelaniazko prosan: *he aquí* (frantsesez bai, ordea, mintzatu nahiz idatzian: *voici*).

Geure baitatik arituz gero, bada —edo ez, behintzat, erdara jakin horren hain morrontzapean—, maizago aurkituko genituzke, dudarik gabe, honelakoak:

(25) Hainbat genero daude. *Hona* (zein diren) behinenak: [=Hauek dira behinenak:]

Hots, laburtuz: aukeran, *honako* baino premiazkoagoa genuke *hona* soila. Kontuan har bedi, gainera, erlatibo usteltxoak direla guztiz nagusi beste joskeran, eta *hona* horrek ematen digula horretarako irtenbide egokietariko bat:

(26) ? (*Honako*) *hauek* dira garrantzirik handiena dutenak:

(27) *Hauek* dute garrantzirik handiena:

(28) *Hona* zeintzuek dute garrantzirik handiena:

Halakoetara jo gabe ere, haatik, bistan da (azpimarra dezagun berriro hasieratik esaten ari garena), aski dugu *hau(ek)* erakusle soila. Hala, bada, oinarrian eta edozertarako baliagarri, horixe da *el/lo(s) siguientes*: esapidearen euskal ordaina: *hau(ek)*:

Hortxe amaitu behar genuke azalpena, baina gertatzen da gure arteko askok are mimetikokiago itzuli nahi izan duela *siguientes* hori, erdararen gehiegiko miresmenez nahiz erakusleen *arrunkeriatik* itzuri nahian. Hots, ez tarteko *honako* hori hartarako egokituz, baizik eta hitzaren literaltasunari itsuki atxikiz. Hortik sortuak bide dira gure testuetan oraindik ere lehian dabilzan kalko gordinagoak: *ondorengo, hurrengo, ondoko*...

Ohiturak ohitura, nahikoa garbi dago, nik uste, ez dugula halakoen premiarik batere, eta formen ugaritasunak, berriz, ez dakarkigula inolako onurarik, eta bai zalantza ugari. Gainera, *honakok* ez bezala, bestelako ulerbidea eman dezakete tankera horretakoek testuinguru batzuetan, horixe baitute berezko adiera:

(29) [aurretik aipatu dugunaren] *ondorengo/hurrengo*...

Jakina, ez da larria kontua baldin eta erakuslea ezabatzen ez bada, hark ematen baitio katafora-zentzua sintagmari; baina kalkoaren gordinak erabateko paralelismora bultzatzen du aurki:

(30) *hurrengo* proposamen *hau(ek)*: >

(31) *hurrengo* proposamena(*k*):

Halakoetatik zabalen dabilena *ondorengo* da, duda handirik gabe, eta erakuslerik gabe gehienetan (erakusleaz gogoratuz gero, hanka bat bederen euskaran dugu).

Oker ez bagaude, bestalde, *ondoko* formak haize-alde eduki du halabehar bat: *honakoren* euskalki-aldaera dugu, izan ere, bokal-asimilazioz (*h*)*onoko*, eta hortik errazago da jauzia, gaztelania lagun.

Gure proposamena, bada, garbi dago:

1. *Hau(ek)* erakusle kataforikoari eutsi beti (edo, dagozkion joskeretan, *hona* fatikora).
2. Aurretik (argiago, nabarmenago) markatu nahi izatekotan, *honako* izenlagun fatikora jo, baina beti ere erakusle arrunta ezabatu gabe (*honako... hau(ek)*).
3. Ez erabili eginkizun horretan honelakorik: *ondoren(go)*, *jarraian*, *ondoko*, *hurrengo...*
4. Ez jo alferrik erlatibozkoetara.

Beharbada, *ondorengo* horren erabilera beste kontu batek ere sustatu du (hori gabe ere, puria itzelean dabil aspaldion *ondoren* hori: *osteanen* sinonimo soil izateari utzi, eta *gero* arruntari berari ere lekua kentzeraino). Izan ere, bada erdaraz beste joskera bat, *siguientes* trinkoa erlatibozko perpaus osora hedatzen duena:

(32) las *siguientes* propuestas:

(33) las propuestas [que se mencionan *a continuación*]:

Hori horrelatsu emateko, jakina, adizlaguna behar dugu (eta *honak* ez du balio hor), eta nahi genuke, aukeran, *ondorengo* izenlagunaren molde berekoa izatea adizlagun hori (erdaraz, horratik, ez da hala gertatzen: eskerrak!):

(34) *ondoren* / *ondorengo*

Bestela, “*jarraian* aipatuko/aipatzen ditugun proposamenak”etik abiatuko bagina, kasurako, *gero* “*jarraiko* proposamenak” egin nahi genuke (edo “*jarraingo* proposamenak”!).

Antzekoenera jo izan du hainbatek: “*hurrengo* proposamenak”. Horixe litzateke, hain zuzen, erdaratik hurbilena (eta, hala ere, *a continuación* juxtu bi-puntuen aurreko lekuan doa, eta *jarraian*, berriz...):

(35) ... a continuación: = jarraian...:

(36) siguiente = hurrengo/ondorengo

Kontua, ordea, zera da: ea ezertarako behar dugun erlatibo osora hedaturiko molde hori. Izan ere, *se mencionan* horrek edo berorren aldaerek ez dute ematen informazio gehiagorik, eta guztiz behartu eta zurrinak dira. Aski da, beraz, orain arteko moldea, betikoa (bi-puntuetara hurbiltzen zaigu ostera elementu kataforikoa, erakuslea baita):

(37) (*honako*) proposamen *hauek*:

Erlatiboan doana benetako informazioa izanez gero, berriz, ez dago arazorik euskaraz ere hala emateko, eta geroaldiak, erakusleak eta bi-puntuak ederki asko ematen dute “que... a continuación” ortopediko samar horren zentzua (beste joskeraren batera ere jo liteke, aukeran, erlatiboan bihurrikeria saihesteko):

(38) ??? Azter itzazu ondoren atalka azaltzen ditugun proposamenak:

(39) Azter itzazu (*honako*) atalez atal azalduko ditugun proposamen *hauek*:

(40) *Hona* proposamen batzuk, atalez atal azalduak. Azter itzazu:

Kontua, bada, kasu tipikoan, “*ondoren* emango ditugun aukera *hauek*” molde kalkatuegikoak —eta areago aldaera gordinagoak: “*jarraian* aipatzen ditugun *datuak*”— kritikoki hartzea da, eta hizkuntza-ekonomia jatorrez ematea: “(honako) proposamen/aukera/datu *hauek*”.

Aztertzen ari garen katafora-moldetik kanpo geratzen dira beste testu-seinalatzaile batzuk, ez baitagozkie bi-puntuak zuzen-zuzenean lotzen dituzten kontuei:

(41) beherago/aurrerago aztertuko dugu(n) *auzia*

Beste kataforiko bat ere ez dugu bereziki aztertu, baina aipamentxo bat bederen merezi du: *zera* (bada gure testuan adibide bat, goraxeago). Idatzirako desegokitzat jo izan da askotan, mintzatuan ere zalantza-makulu baldar samarra delakoan beharbada (hori ere bada noski); baina ez dirudi hain garbi dagoenik debeku horren kontua. Aldea, izatekotan, lehian dauden erabileretan, zera dateke (ez naiz ausartzen *hau(xe) da* esatera): lausoagoa dela, aukeran, *zera* kataforikoa:

(42) oraintxe esango dudana: X, alegia

hauren aldean:

(43) bi puntuen ondoren zehaztuko dudana: X, hain zuzen

Hala, diskurtso arruntean aise txertatzen da *zera*, idatziz ere (eta guztiz aukerako da, besteak beste, galdegai luzeko esaldiak erosotzeko), baina zehaztasun formala bilatzen duten genero eta testuinguruetan ez du halako lekurik. Kontuan har bedi, bestalde, *hauren* kasu partikular batekin baino ez dela *zeraren* lehia (izenordainarekin, singularrean eta zentzu neutroan).

Berriro ere, bada, oinarrizko moldera gatoz: erakusleetara. Beste edozer egotz dakioke hemen proposatzen dugun batera-bideari, baina ez behintzat zailtasuna edo konplikazioa: guztion oinarrizko moldera (atzera) biltzea baino ez da, izan ere.